

Edo, beste modu batez  $R = 12,21 \%$ .  
Berezko hizkuntzetan  $R \sim 50 \%$ .

(Hitz batez, zaratarengatik →fonemen erdiak galdurik ere, mezua ulertu ohi da).

*Txillardegi*

**Erreferentea**

*referente / référent / referent*

Hizkuntz →zeinuak, berez, eta →hiztunen talde bakoitzean bereziki, hizkuntzaz kanpoko gauzetara bidaltzen gaitu. Hizkuntzatik at dagoen hori *erreferentea* da (*designatum* ere esaten zaio).

Erreferentea ez da, inola ere, egiazko gauzen munduko atal bat. Zenbait «gauza», egia esan, edozein kultur egituraketa baino lehenago bide dago. Baina hizkuntzek ez dute errealitatea modu berera egituratzen edo ebakitzen: hizkuntza batek sexua kontutuan hartzen badu (*ahizpa, arreba*), beste batek ez (*hermana*); hizkuntza batek →aspektuen arabera esan erazten ditu baldintzak, beste batek ez; eta abar.

Erreferentea, bestalde, izan ez izatea ere gerta daiteke (zentauroa).

**Erreferentzia**

*referencia / référence / reference*

→Erreferentziaren bitartez, hizkuntzaren mundutik at irteten gara; eta, hau dela bide, erreferentziarik gabeko mintzairarik ez dago.

Saussure-k lehendabizikorik azaldu zuenez, hizkuntz zeinu batek bi aurpegi edo izari lotzen ditu: →kontzeptu bat eta dago-kion irudi akustikoa. Baina hizkuntzari datxekion *erreferentziaren* bitartez kontzeptuen maila horretatik kanpora joaten bide gara: [goñi] →soinu-ilararen bitartez, esate baterako, «gorri» →hitzari dagokion «kontzeptua» dugu gogoan. Baina kontzeptu hau kanpoko errealitate bati datxekio. Hots, «aipatu»tako hau, dena dela, pertzepzio-bidez ezagutzen dugu; eta, hitz batez, ez da gauza bera; gauza hau, kultur-bahez iragan ondoren, agertzen zaiguna baizik. Triangelu hau eman daiteke, hortaz:



Diagraman ikus daitekeenez, hertsia goa da →adieraziak →adierazlearekin eta errefe-

rentziarekin dituen loturak, adierazlea eta erreferentzia lotzen dituen baina.

**Erregela**

Gaur egun, hizkuntza baten perpaus zuzen guztien sortzaile den erregela-→sistema gisa aurkeztu ohi da gramatika. Sistema horrek egiturazko deskribapen bat ematen die.

Gramatika →sortzaile standard delakoaren oinarritzko osagaiak →*ordezkapen-erregela* mordo bat dauka aurrenik (eraketa, →berridazketa, →hedapena). Horrek →kategori →ikurrak erabiltzen ditu eta lexikoarekin batera sakoneko →egiturak sortzen. Ezkerraldeko ikurra, ikur baten edo batzuren bidez berridazten da gezia eskuinaldean; eskema orokor honen arabera:

$$A \rightarrow Z/X - Y$$

Erregela horretan, kategori ikur bat da A; Z-k berriz, badu ikur bat gutxiarik, eta X eta Y kateak dira, hutsak zenbait aldiz, A-ren →textuingurua osatzen dutelarik. Textuinguru hori dagoen erabil daiteke, hain zuzen, erregela hori.

Badago beste oinarritzko erregela-mota bat, →Chomsky-k 1965ean sartua: *azpikategoriazio* izenekoak, alegia. →Ezagarri sintaktiko-semantikoak sartzea dute helburu, horretara ikur konplexuak sortzen dituztelarik. Esate baterako, horien arteko ez-murritzailleek I (izena) ikurrari, ezagarri batzu erantsiko dizkiote: (± abstraktu), esate baterako, edo-ta (± gizatiar); eta ezagarri hauek lexiko-unitateen ezarpena amaiera-katean mugatzen dute. [+ I, + gizatiar, + nagusi, + mask] ikur konplexua, esate baterako, *gizon* hitzaz ordezkatu daiteke; ez, ordea, *etxe, andre* edo *seme* →hitzez.

Erregela murritzailen artean, berriz, *azpikategoriazio* hertsuari dagozkion erregelek, ondoko kategori ingurunearen arabera sailkatzen dituzte kategori lexikal batzuk. Eta, horretara, eta hizkuntza askotan [+ art -] ezar dakieke →izen →erkideei; ezagarri horren bitartez, hau adierazten dugularik: izen →propioez bestaldera, aurretik →artikulua eraman dezaketela. →Aditzak, bide beretik, ira-

## Erregularra

gankor eta →iragangaitz gisa azpisailka daitezke, bigarren izen-→sintagmarik eraman dezaketen ala ez kontu: [± — IS]. Bigarren erregela murriztaile mota honi, →hautapenezkoa deritzo; →hautapen-erregelen →funtzioa, bukaeraurreko katean →morfemak hautatzerakoan murrizketak ezartzea da, morfema horien egitura semantikoaren arabera. Esate baterako, aditz baten ezarpena ezaugarri sintaktiko-semantiko jakin bat →subjektu edo →objektu bezala perpausean agertzeak baldintzatzen du; aditz baten →ikur konplexuak era honetako hautapen-ezaugarri bat badu

$$\left[ \begin{array}{c} \text{---} [+ \text{ bizidun}] \\ \text{I} \end{array} \right] \dots \left. \vphantom{\left[ \begin{array}{c} \text{---} [+ \text{ bizidun}] \\ \text{I} \end{array} \right]} \right] \text{AS}$$

subjektua *txakurra* izan daiteke agian, baina ez *liburu*.

Badago beste erregularik ere Gramatika →Sortzailean: transformaziozkoak, segmentaziozkoak, →erredundantziko erregela fonologikoak, morfema-egiturazko erregelak, eta abar.

J. L. Iturrioz  
Itz.: Txillardegi

## Erregularra

*regular / régulier / regular*

Funtsezkotzat ematen den →paradigmari (→deklinabidearen, →aditz-jokoaren, perpausmotaren eta abarren paradigmari) jarraitzen zaion hizkuntz forma oro *erregularra* deitzen da. Paradigma erregularra, forma-kopururik zabalena biltzen duena da.

→Aldaketa bat, baldintza berdinetan jarriko segmentu guztiei aplikatzen zaienean, *erregularra* dela esaten da.

## Errekurtsiboa

Elementu errekurtsiboa, Gramatika →sortzailean, bere izaera berbera duen beste elementu baten atal gisa nahi adina bider txerta daitekeen hizkuntz elementuari deitzen zaio.

Perpaus-egiturazko gramatika batek, →erregela-multzo mugatua duenez, perpaus-multzo azkengabea sortarazteko behar-beharrezko du matematikaren aldetik zenbait →ikurrek beren burua dominatzea. Era honetara:

$$X \rightarrow A B$$

$$A \rightarrow X C$$

Hemen X dugu elementu errekurtsiboa.

Gaur egun, gramatika sortzailearen aldeko gehienek ametitzen dute P (= perpausa) dela ikur errekurtsiko bakarra. Adibidez, gramatika sortzaile batean honako erregela pareak aurki daitezke:  $P \rightarrow I S + A S$  eta beste hau:  $I S \rightarrow (P) + I + \text{mug.}$

Lehenbiziko erregela honetan P elementua geziaren ezkerretara agertzen da. Bestean, berriz, ikur bera, aukerako atal bezala, geziaren eskuinetara agertzen zaigu. Hau gertatzen denean —definizioz— erregelak errekurtsiboak dira.

Erregelen errekurtsibotasun hau dela medio, behin eta berriro aplikatu daitezke perpaus baten →eratorpena egiterakoan. Eta, beraz, perpaus bat bestearen barnean behin eta berriro txerta daiteke, horrela perpaus-kopuru azkengabea lortuz.

Prozesu sortzaile errekurtsiboa, Gramatika sortzailean, erregela-multzo mugatu baten bidez elementu-multzo bukatuzina zenbakitzen duen prozesuari deitzen zaio, adibidez, hizkuntza bateko perpaus-kopurua zenbakitzen duenari.

P. Goenaga

## Errekzioa

Ik. ERAENKETA

## Erretroflexua

*retroflejo / rétroflexe / retroflex*

→Fonema baten artikulazioak →mihi-punta aho-sabai aldera jasotzea eskatzen duenean, fonema horri *erretroflexua* esaten zaio. Artikulazio erretroflexua *kakuminala* edo *zerebrala* ere deitzen da.

→Kontsonante erretroflexuak, →horzkari ez-erretroflexu sail bati horzkari erretroflexu sail bat aurkajartzen dioten erretroflexuak dira. India-ko →dialektoetan, arabieraz eta Europa-ko leku bakan batzutan ematen dira.

→Bokal erretroflexuak suedieraz eta ingeles-barrietate batzutan gertatzen dira. Azken hauetan bokalak atzetik datorren [r]-rekin bat egiten duelako gertatzen dira: *girl*, *far* hitzetan. Suedieraz ere badago →artikulazio-mota hau, [r] baten eta atzetik